

EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOIUNTURARI BURUZKO INDIZEA (EKBI), 2012ko 2. HIRUHILEKOA


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %23,1 murriztu zen 2012ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean %7,1 murriztu zen

Euskal AEko eraikuntza: EUSTATEk landutako datuen arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %23,1 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntza jarduera.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2012ko bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %7,1 murriztu zen, 2012ko lehenengoaren aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

2012ko bigarren hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari -urte arteko %21,1eko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari, -%26,7koa- zor izan zitzaien.

Hiruhilekoen artean, 2012ko bigarren hiruhilekoko sektoreko jarduera aurrekokoarekin alderatuz gero, Etxegintzak bilakaera negatiboa du, %6,3, baita Obra Zibilak ere, %8,5.

Eraikuntzako enplegua %4,8 jaitsi zen 2012ko lehenengo hiruhilekoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2012ko 2. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	12 2.hir / 11 2.hir	At / At-1 (1)	12 2.hir / 12 1.hir	12 1.hir / 11 4.hir
Produkzioaren indizea	-23,1	-22,9	-7,1	-8,7
Eraikuntza	-21,1	-21,4	-6,3	-8,2
Obra zibila	-26,7	-25,8	-8,5	-9,8
Landunen indizeak	-	-	-4,8	-4,4

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); datu-bankua